

Maitasunean zehatzak izan

Betierekotasun nahia gizaki orori datzekio, sinesmen erlijiosoak izan edo ez. Izan ere, gutako bakoitzak bere buruaz hitz egiten duen zerbait utzi nahi luke bere atzean betiko. Artistek indar handiz sentitzen eta esperimentatzen dute sortzen eta beren arima entregatzen duten obretan adieraztean, baina baita ikerketa zientifikoan lan egiten dutenek, giza eskalako ekonomia biltzen dutenek, oinarritzko eskubideen alde borrokatzen dutenek eta bakean oinarritutako mundua amesten dutenek ere.

Baina egia da, halaber, gizon edo emakume orok betierekotasun zaporeko esperientzia bizitzeko aukera duela, maitatuz, besteak maitatuz, hurbilenetatik hasi eta urrunekoenekin jarraituz, bizitzak egunero gure ondoan jartzen duen lagun hurkoa ahaztu gabe. Esaldi batek gogorarazten digu: "Egin besteei zuri egitea nahi duzuna, ez egin besteei zuri egitea nahi ez duzuna", gizateriaren kultura eta erlijio guztietan dagoen "urrezko araua" deritzona.

Maitatzea, beraz, beti; hau da, hurkoaz arduratzea, pozak eta penak partekatzea; geure baitatik irtetea harreman berriak eraikitzeke elkarrekiko errespetuz, anaiarteko elkartasunaz, laguntza desinteresatuaz, lankidetzaz, bilaketa amankomunaz... eginak. Gure egunei zentzua eman diezaiekeen esperientzia aparta, gure sentimendurik ederrenak zabaltzen dituen eta guztiona den behar sakon bati erantzuten diona, eta bizitza indibidualari zein bizitza sozialari zaporea ematen dion "harreman on" hori zirkulazioan jartzen duena. Denak maitatu, bereizketarik gabe, maitasunean inizatiba hartu, bestea sakonki ulertu eta bere beharrak atzeman keinu zehatzez erantzunez; maitasuna ez baita sentimentalismoa, gogoa, bihotza eta besoak mugitzen dituen eta ekintzara bultzatzen gaituen balioa baizik. Eta lehen nagusikeria, larderia, axolagabekeria eta bakardadea zegoen tokian bizitza sortzen ikusiko dugu gure inguruan, gure ekarpen txiki, indartsu eta erabakigarriari esker ere, zentzuzko bizitza aberatsago bat, betiko aztarna iraunkorra utziko duena.

Denok dakigu Nazareteko Jesus izan zela maitasunaz eta elkar-maitasunaz hitz egin zuen lehena. Haren hitzak gaur egun ere entzuten dira gudan, eta jarraitu beharreko bide bat erakusten digute. Izan ere, samariarraren parabola gogoratzen dugu, Samariako gizon baten istorioa, bidean lapur batzuek zauritutako eta gaizki tratatutako atzerritar bat aurkitzean gelditu eta hartaz arduratu zena, apaiz bat eta lebita bat gelditu gabe igaro ziren bitartean.

Gu guztiok samariar hura bezalakoak izan gaitezke, eta maitasunaren dimentsio zehatza bizi dezakegu, batez ere gerren indarkeriaz, gehiegikeriaz eta heriotzaz beteriko egun hauetan, eta gure etxeetan, gure lantokietan, gure hirietan, Chiara Lubichek gogoratzen zuen bezala, "herrien batasunerako bake-kultura" sortu.

Bere ametsa zen eta gaur gurea ere izan liteke.